

JOXE MARI ARRIETA

NERE ONDAR ALEA

NERE ONDAR ALEA

AUSPOA LIBURUTEGIA
(162)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 — Tolosa, Gipuzkoa
Teléfono (943) 67 12 82

JOXE MARI ARRIETA

NERE ONDAR
ALEA

AUSPOA LIBURUTEGIA

1983

Azala: Ernani, 1838, Henry Wilkinson'en
grabado batean.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)

Fotokonposatzalle: Onena - Lasarte

Inprimatzaille: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz

ISBN 84-7158-103-5

Depósito Legal: S. S. 18/83

Enero 1983

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
Birjiña eder bati	11
Eziñezko ametsetan	13
Patxi nere lagunari Lerida'n soldadu zegoela	17
Usoak eta eiztariak	20
Nola bizi gera?	23
Eskerrak, Matxain	26
Julian lagunari	29
Segundo Kalonje'ri	32
Bertsolari-Txapelketa	35
Euskera gaxoa, nere agur goxoa	39
Bareari	43
Aurtxoa ta gizartea	48
Zugaitz zarrari	53
Amari	55
Euskal parlamentuari	59
Gazte, gazte!	62
Oillagorretan	65
<i>Mustafa</i> 'ren bizitza	69
Proiekto berria	73
Zaldibi'ko txapelketa	75
Bertsozko alkarrizketa	77
Nun da egia?	82
Zikuñaga'ko Amari	85
Au dek zerri-tokia! (<i>Colza</i> olioaren ondorenei buruz) ..	87
San Juan jaiak	91
Manuel Lasarte	94
Tentaketan	97
Astoa sasoiean	109
Gure politikoak	114
Zerri iltzea	117
Urbia eta Aizkorri	121
Koplak	124
Zugaitz bakartia	129
Euskal baratza euskera lore	134
Salamanca'ra eizera joanda	137
Bukatu ziran oporrak	140
Egun on	143

ITZAURREA

Itzaurre gisara labur-labur zerbait esan nai, eta batek baiño geiagok egindako galderari erantzunez asiko naiz. Nere bertso-zaletasuna nundik, nola eta noiz sortua dan, alegia.

Baserriak euskera eta bertso-giroa oso bereak dituen ez eta ni baserritarra izanik, aurtzaroan ez nuen beste izkuntzik gure sukalde, soro eta zelaietan.

Mutil koskorra nintzala, gogoan det, «bertsolari» itzak itzal aundia zuen neretzat. Bertsolaria, beste euskaldunen gaiñetik zegoen norbait zan; mailla altuago batean ipiñia neukan.

Gero, sasoi batera iristean, eztabaidak, arazoak eta kezkek barruan irakiten dute, nortasunaren goldea biotzeko soroa urratzen asten da, eta auei irtenbide bat eman bear nolabait.

Irteera ori, len nion bertso-zaletasuna piztua neukanez, bertsolaritzaren atea izan zitekeala pentsatu nuen. Orra or nundik nora sortutako arra deten au.

Denak ere errezak ez, baiña batez ere lenengo pausoak gogorrak izaten dira. Aurren bertsoak argitaratzean, ordea, jarraitzera berotu nindutenak izan ziran.

Batean eta bestean agertutako aleak bildu eta gordean neuzkanekin liburutxo bat osatu degu. Eskuetan dezun auxe, irakurle.

Joxe Mari Arrieta

BIRJIÑA EDER BATI

1. Ain da eder eta piña
nik maite dedan birjiña,
nere biotzak zuregan dauka
bere amets atsegiña;
zer zoriontsu nintzaken, maite,
zu neretzako baziña!

2. Izar antzeko begiak
ditu zure aurpegiak,
ain dira eder, ain dira gozo,
ain dira alai argiak;
oien inbiriz dagoela bart
esana dit illargiak.

3. Asmo artzen det uzteko,
geiago ez ikusteko,
baiña biotza beti zugana
bateko edo besteko;
zure amets bat asko det berriz
pena guztiak azteko.

4. Zu zera lore bizia,
nere izate guzia,
une batzutan amets gozo ta
urrena egi gazia,
gure Jainkoak erakutsi ta
artzea galerazia.

5. Nere biotzaren jabe,
malkoz urtzen dezun labe,
zu zaitut poza eta tristura,
zorion eta naigabe;
ainbeste nola maite diteke
itxaropenikan gabe?

(Ernani'n, 1975'ean)

EZIÑEZKO AMETSETAN

1. Iru-lau bertso kanta
nai ta au da lana
gaur nere buruari
jarri diodana;
agertzen egingo det
nik alegin dana,
begi bi auentzako,
maite, zu zerana.

2. Mintzatu al banedi
senti dedan egiz,
berdiñikan ez dezu
beste bat aurpegiz;
bi izartxo dituzu
zeru ortan begiz,
monumentu lirain bat
gorputz dana berriz.

3. Begiz ikusi arren
itzez ezin osa
zure ibiliak dun
grazi apraposa;
zu zera maiatzeko
usai dun arrosa,
lurrik ikutu gabe
doan mariposa.

4. Guztiz aberatsa da
euskaldun jardiña,
zu berriz orko lore
danen erregiña;
jardinero guztien
amets atsegiña,
munduan parerikan
ez dun krabeliña.

5. Mundu guztiari nik
nai nioke esan,
zure edertasunen
berri izan dezan:
naiz-eta egorikan
zeuregan ez izan,
egan ibiltzen zera
aingeruen gisan.

6. Barruan gailendu zait
maitasunez sua,
ta ezin menderatu
zuk, biotz gaixua;
maite, eztia bezin
legun da goxua
zure ezpaitatik
datorren muxua.

7. Pentsatu utsarekin
artzen nau dardarrak,
nere itzak ain dira
trakets ta baldarrak;
egunezko kezka ta
gaueko negarrak,
danak ordaintzen ditu
zure irriparrak.

8. Iñoiz egon ez dana
biotzeko miñez,
igual aurkituko da
ulertu eziñez;
maitasuna azaltzen
ain da zailla ziñez,
nork esprika lezake
gauza au mingaiñez?

9. Biotza odolduta
nabil arantzetan,
malko-iturrik berriz
bi begi-ertzetan;
egun argian edo
berdin gau beltzetan,
itxaropen gabeko
zoro ametsetan.
10. Biotzak kezkatu-
nauka aspalditikan,
lotu egin nai eta
ezin zergatikan?
Deskuido bat asko du
txikiagatikan,
zuregana dijoa
iges nigandikan.

(1978'ko Ilbeltzean)

PATXI NERE LAGUNARI
LERIDA'N SOLDADU ZEGOELA

1. Kaixo, Patxi, lagun jator,
gaur bertso kantari nator,
ni emen ondo aurkitzen naiz-ta
zer moduz aiz i or?
Soldaduzka naiko gogor,
egon bearra derrigor,
besterik gabe ori bakarrik
badek naiko zigor.
2. Patxi, nik ire berriak
dizkiat jaso berriak:
Lerida aldean badabilkizkik
istillu gorriak;
permisoak txit urriak,
artu dizkitek neurriak,
berdez jantzita pasa bearra
ik Eguberriak.

3. Eguraldi giro otza
ta disziplina zorrotza,
nere iritziz ez dek eguna
izango or motza;
bizimodua arrotza,
jornal gutxiko morrontza,
kabitik urrun ez dek alaitzen
txorien biotza.

4. Argiak eta illunak,
zakarrak eta legunak,
or ere noski danetatikan
ordu ta egunak;
emen jarraitzen degunak,
alegia guk lagunak,
auxe jakin nai: Zer moduz, Patxi,
neskatx katalanak?

5. Konkistak edo ligiak
dira gazteen legiak,
Lerida'n etzak denborik galdu,
zabaldu begiak;
aitor ditzagun egiak:
orko neskaxen erdiak
engañatzeko azala ba-dik
ire aurpegiak.

6. Lenago ere gu sarri
adarra jotzen alkarri
jardunak gaituk, eta gaur ere
ez dek arrigarri;
bueltan beste batzuk jarri,
Gabon eta Eguberri
ondo pasa ta gure artera
lenbailen etorri.

(1977'ko Abenduan)

USOAK ETA EIZTARIAK

1. Maixua zera ontan,
ba-dakit, Basarri,
ni berriz ikasle bat
nabillena larri;
eiztariak tentatzen
asten zera sarri,
bertso bat edo beste
nai nituzke jarri.

2. Lengoan jaso nitun
zure erasoak,
eta ez derizkiot
oso erosoak;
guk egiten ditugu
otordu gozoak,
janaz erbi, galeper,
oillagor, usoak.

3. Gezurti pama degu,
ez al da gogorra?
Beste batzuk errudun,
guretzat zigorra;
lengoan egin nuan
sorta, jaunak, orra:
larogetabi uso
eta oillagorra.

4. Urte guztia gogor
pasatu lanean,
pake pixka bat gero
nai udazkenean;
bapo egoten gera
usorik danean,
egoaizeak pil-pil
jotzen duanean.

5. Gabez ontza-marruak
goiko gaztaiñean,
azpian garoa ta
izarrak gaiñean,
kiñuka jostalari
zeru urdiñean;
nun aurki liteke bat
pake berdiñean?

6. Arturikan kartutxo
eta eskupeta,
mendira ilusio
onenez beteta;
neronek ere sarri
egiña det eta,
naiz beti ez itzuli
egaztiz aseta.

7. Mendi gaiñean erne
begiak luzatu,
burua ondo gorde,
eizik ez uxatu;
illa ondo pasata,
beatza gozatu,
uso sorta on bana
guztiok osatu.

(El Diario Vasco, 1979-X-24)

NOLA BIZI GERA?

1. Au da au mundu makurra!
Gizona eta zakurra
mailla berean jarriak gaude;
usteldu da lurra.
Biotz piñari egurra,
bizitzen dana lapurra,
odol izerdiz lortzen da emen
lortzen dan apurra.

2. Lau eguneko azoka
mundua danik ez uka,
besteek lotu, eta eskuan
nai genduke soka.
Kontra guk nola borroka?
Al dan bezela mokoka;
danok dakigu bizitza beti
ez dala bikoka.

3. Ba-dabil zenbait azari
jaso naian milla sari,
norbera ondo eta or konpon
besteren ezari.
Orrela zenbat gidari?
Agindu naia ugari,
beurak txalupa gaiñean eta
besteak igari.

4. Batzuek ondo aseak,
besteak erdi goseak,
borroka ortan antziñatikan
munduko klaseak.
Nundik jotzen du aizeak?
Andikan sermoi luzeak,
asko agindu, ta moztutzeko
prestu guraizeak.

5. Pare gabeko jardiña,
Paradisuan berdiña
izan ziteken mundua dago
lar pilla egiña;
Igartu da lore piña,
indartu ote zikiña,
zoriona da sasiak ito
zigun krabeliña.

6. Sarri entzuten dan boza:
lau egun txar auek pasa,
baiña bizitza ez da arantzik
gabeko arrosa;
joan zan bizitzeko poza,
ori berriz nola osa?
Biotz barruko alkartasuna
noski, aproposa.
7. Auxe neurketa zorua:
nik pezeta, zuk durua,
munduarentzat geiago zera
ta jaso burua;
Jaungoiko dago dirua,
zeru bere ingurua,
ate geienak zabalik ditun
giltza segurua.
8. Zenbat zikinkeri ta loi,
astindurikan bee ta goi,
diru maltzurak estaltzen ditu
mundu ontan doi-doi;
alde danetan arrazoi,
nagusi berde ta marroi,
dirua dago jaun eta jabe
ta gu bere morroi.

(El Diario Vasco, 1979-XI-28)

(Goiz-Argi, 1979-XII-8)

ESKERRAK, MATXAIN

1. Zuretzako bertsoak
emen dauzkat gertu,
Matxain'dar Manuel, nai
zinduzket eskertu.
Baiña nola ez jakin,
mesedez, ulertu;
nere izen kaxkarra
geiegi edertu,
eta lotsaren lotsez
biotz dana lertu.
2. Zure bertso goxoak
ditut irakurri,
bein bear da etzaude
talentutik urri;
aberats bezin zuzen
puntu eta neurri,
bertso ederrak ditun
mendiko iturri,
egarritu naiz eta
zugana etorri.

3. Zuk berpiztu didazu
neri adorea,
alajaiña, itz goxoz
esan dit «lorea».
Ez dezu gutxi jaso
nere umorea;
usai pixka bat igual,
baiña dotorea
ez pentsatu danikan
dedan kolorea.

4. Zure izen aundiak
egitean talan,
nunai entzuten degu:
emen bezela an;
bertso jartzen txukuna
exeririk gelan;
tokan maixua berriz,
ta... zer esan bolan?
siniste utsak ere
ez al du naiko lan?

5. Aiete'tik kantuan
ari zeran txori,
pakezalea zera,
aundia da ori;
naiz-eta izan beltza,
zuri edo ori,
gizatasunez baldin
bagabiltza lori,
gerrarik ezin opa
munduan iñori.

6. Istoriaren zear
zarta eta dale
artuarren, ez gera
gerraren maitale;
baizik egi, justizi,
ta lanaren zale,
aldegin zuk, kanpoko
otso ardi-jale,
bertan ba-zegok naiko
putre eta bele.

7. Gosaltzeko lana ta
bazkaltzen nekea,
apaltzeko zer ote?
ta... esker merkea.
Bazter guztietatik
deia ta eskea,
batzuek su goxoa,
besteentzat kea,
au al da justizia,
au al da pakea?

(El Diario Vasco, 1979-XII-23)

JULIAN LAGUNARI

1. Bere itz goxoekin
biotza dit ostu,
kanpora atera zait
baiña ez da oztu.
Zure bertso mordoxkak
ez nau gutxi poztu,
lore asko dago or
ta batzuek moztu,
bear baiño geiago
ez nadilla puztu.
2. Itz jario gozoan
asi da *Aterpe*,
nere barruko ekaitz,
kezkaren aterpe;
bat aurkitzen danean
nekepean torpe,
orrelako bultzada,
gaiñera ain merke,
ixtimatzekoa da,
laister nauzu eske.

3. Biotz itxumen eta
begiko lausoak
sari okertzen ditu
gizonen pausoak.
Maitasunez urriak,
inbiriz osoak;
ez al dira bi gauza
zail baiña gozoak,
batera izatea
lagun da auzoak?

4. «Bertsoak bear dira»,
diozu zuk larri,
euskera nola dagon
gaixoa elbarri;
gogortu zan bidea
sasi eta arri,
etorri ingurura,
eskua ekarri,
danok lagundu bear
diogu alkarri.

5. Euskera, mendeetan,
amaika otz-bero,
ikusiko zenduan
noski onezkero;
ezer gutxi lortzen da
emen ero-ero,
baiña negu beltz ori
bein pasa ezkerro,
udaberri alaia
etortzen da gero.

6. Denbora joan da gero
zertarako penik?
Ez dezagula galdu
guk itxaropenik.
Erri baten pitxia
izkuntza da leenik,
ta ez eduki arren
nai nuken kemenik,
nere ondar alea
jartzen det emen nik.

(El Diario Vasco, 1980-I-2)

(Goiz-Argi, 1980-I-5)

SEGUNDO KALONJE'RI

1. Merezi duan eran
erantzun bearrez
aurkitzen nintzan, baiña
ez nago indarrez;
biotza estututa,
gorputza dardarrez,
alde batetik poza,
bestetik beldurrez,
ai, itz auek idatzi
al banintza urrez!
2. Bizitzan zear ba-da
oztopo ta esi,
gozotasun utsean
ez gaitezen ezi.
Egia auxe da-ta
ez noa igesi,
zertarako landare
kaxkar au berezi?
Orrenbeste ur prexko
ez nuan merezi.

3. Bertsoa lurra bada,
zeu zera goldea,
zeruko aingeruen
mintzoen moldea;
biotza xamurtzen dun
abesti-taldea,
nolabait agertu nai,
itzik ez ordea,
Kalonje, nun daukazu
eztia gordea?

4. Gaiñezka egin dezu
Zeru Goiko argiz,
ezin mintza bestela
olako itz garbiz.
Irakurriak ditut
orrenbeste aldiz,
auxe aitortzen dizut
biotzetik egiz:
nere begi bietan
egin dute diz-diz.

5. Oiek irakurtzen nik
zenbatsu segundo,
minutu edo ordu,
ez dakit ez ondo;
zure bertsoak lore
ta zeu arros-ondo,
orrelako usairik
gaur arte egundo,
biotzera etzaida
iritxi, Segundo.

6. Agoan goxoki bat
nori ez atsegin?
Goxoki utsez berriz
zuk neri itzegin.
Nik ordaiña eman nai,
ori ezin egin,
besterik ez nezake,
ta ia gu perin
biltzen geran, diozun
bezela, Ernani'n.

(El Diario Vasco, 1980-I-13)
(Goiz-Argi, 1980-I-19)

BERTSOLARI-TXAPELKETA

1. Milla bederatzireun,
euskaldun laguna,
larogeigarrena da
asi deguna.
Urtarrillaren seia,
Errege Eguna,
Donostia'ko Balda'n
bai giro leguna;
baratz euskalduna,
ura osasuna!
Bertsozko jarduna,
nor zan txapelduna?
Amuriza Xabier
irabaztuna.

2. Balda inguru artan
nork zedukan otzik?
Etzegon ekaitzikan,
etzan izotzik.
Guztiok senideak,
iñor ez arrotzik,
euskera barra-barra
eta danok pozik;
burukatu zortzik
ta ez izan lotsik,
bat ezpaizan motzik
ba-zan antxe itzik!
Su artu etzuanak
ez du biotzik.

3. Arrasate'n jarriak
egosten eltzean,
ta Gernika'n jarraitu
ain su beltzean.
Auetatik erdiak
Donosti'n biltzean,
zenbat arrazoi sakon
zintzilik iltzean;
gaiari eltzean
lurriña pertzean,
usaia ertzean,
mamia ortzean,
ai, zeru ura banu,
Jauna, iltzean!

4. Danak lepo egiñak
ainbat exerleku,
eta zutik ere bai
zenbaitxo leku.
Iriondo'ren mende
artu zuten esku,
bat oillar baldin bazan
bestea zan kuku;
emendikan ku-ku,
andik kukurruku,
aingeruen zuku,
edertasun zaku,
txapela zeïni jarri
nork egin juzku?

5. Amaika bertsozale
ta euskaldun tinko,
igandean bildu zan
or nerekiko.
«Kaixo, Joxe Manuel!
Zer moduz, Periko?
Esku ori luza zak,
lagun aspaldiko».
Aiton da mutiko,
ta zenbat sasoiko.
«Eskerrak, Jaungoiko»
nion belauniko.
Euskerarik oraindik
etzaiguk ilko!

6. Amuriza txapeldun,
Enbeita bigarren,
beste sei bertsolari
jatorrak urren;
konturatu gaitezen
al danik azkarren,
orrelako jai batek
zenbat on dakarren;
naiz ta sarri erren
guk ikusi arren
gazte eta zarren
kanpo eta barren,
igandean euskera
genduan aurren.

(El Diario Vasco, 1980-I-16 eta 17)

EUSKERA GAXOA, NERE AGUR GOXOA

1. Ama euskera, artu itzazu
semetxo onen laztanak,
ez al dizu-ta miñik emango
nere ezjakintasunak.
Mintzatu zait biotza,
nik jakinduri motza
bertsoz agertzeko danak,
erri au zer dan ez daki magal
ortan goxatu ez danak.

2. Zoritxarrean kolokan dabil
euskararen osasuna,
gaitza txar asko dabilki eta
ona emen bat lizuna:
Euskera biotzean,
erdera kokotzean,
au abertzaletasuna!
Izkuntzarekin ez al da asten
erri baten nortasuna?

3. Ikastolaren lan eder ori
bear genduke eskertu,
utzi ziguten bitxi eder au
zaintzen ez iñoiz aspertu.
Zenbat neke ta zama
mendeen zear ama
gauz ori ondo aztertu,
erria maite baldin badegu
izkuntza ezin baztertu.
4. Ama gazte bat da ta esan dit:
«Semearen billa nator,
zuk badakizu guk ikastolan
nola dabilkigun Aitor».
Bueltan euskeraz jator
mutikoakin dator,
aita elkartzen zaie or;
senar-emazte biak erderaz
aurraren eskutik gogor.
5. Oztu zitzaigun beingoz izkuntza,
ezin kendu dardarrikan,
zenbait gurasok epeldu eta
eztu artu indarrikan.
Elkarrekin erdera,
ta zeñentzat euskera?
Aurrarentzat bakarrikan.
Ez derizkiot gure izkuntza
jostallu uts bat danikan.

6. Gazte askotxok alde batera
ez ote du utzi lasai?
Kaleen zear erdal kutsua,
sukaldean erdal usai.
Erria da ikullu
ta mingaña akullu,
zenbat erderaren itzai!
Ardiak maite bear bai dira
nai bada egizko artzai.

7. Uztarri batez loturik daude
izkuntza ta aberria,
zer naigabea autsiko balitz
erditikan uztarria!
Ni goibeltzen naiz asko,
orduan *País Vasco*
eta ez Euskalerrria
izango dala bururatzean.
gure lur zoragarria.

8. Zabal-zabalik dago erderak
bein jarri zion sarea,
eta euskera ez konturatzen,
ia sartu da area.
Gertatzen bada ori,
mutututako txori,
usai gabeko lorea
biurtuko da gu sortu giñan
txoko eder dotorea.

9. Dakizun mallan euskeraz jardun,
nork egingo du parrikan?
Al dana egin ezkerro ez da
geiagoren bearrikan.
Beldur gabe mintzatu
ta ez iñoiz lotsatu,
ez da euskera txarrikan;
gaxorik dago ta bear zaitu,
zuk ez eman bizkarrikan.
10. Biotzez senti ez da naikoa,
dantza dezagun mingaiña,
mendi-zokoan triste dago ta
lortu dezan arkaitz gaiña.
Arnas gabe lurpera
sartzen bada euskera,
kito erri onen muiña;
biar berandu izan diteke
ta egin gaur alegiña.
11. Euskaldun zarrak ez aldegin da
berriak onuntz urbildu,
danok daukagu danon bearra
ta elkarrengana bildu.
Sendi baten moduan
amaren inguruan
jarrai goxo, ez ixildu,
gaur edo biar ez dedin esan:
euskera Euzkadik il du.

(Zeruko Argia, 1980 otsaila 24)

BAREARI

1. Bare bati begira
ia bi orduan,
baratzan egona naiz
erne lenguan;
bertso bat edo beste
jartzea orduan
mereziko zuala
erabaki nuan;
ba-daki nun duan
jan ona munduan:
baratza landuan,
babarrun onduan;
or neukan entsalada
zuk jan zenduan.

2. Baratza osatu nai
landare ederrez,
azelga, letxu, porru,
aza illarrez.
Baiña lagun onekin
ez da, jaunak, errez,
ezpaita konpormatzen
soroko belarrez;
aberats adarrez,
liraiña bizkarrez,
beti asmo txarrez,
bapo janda parrez,
olako soziorik
ez nun bear, ez

3. Nere biotz barruan
sortu dan eztena,
bare madarikatu
alper alena!
Erruz irabazi du
igaztik aurtena,
orduan etzan ori
oraingo laurdena;
usaindu bai dena,
gero jan onena,
zeiñen nabarmena
moko-pin duena,
ondo eramaten du
errejimena.

4. Udaran atsegiña
zaio euri-intza,
gorrotatzen duena
eguzki printza;
jatorritikan ba-du
zerbaite baldintza,
baratza inguruan
gustoko bizitza;
itzalari aintza,
ta bere ekintza
jan da mukik zintza:
berezko jakintza:
bereizten ditu letxu
eta lapaitza.

5. Eguna gorderikan
pasa belarrean,
gosetu da-ta gaba
berriz larrean;
adarrak luzatuta
illunabarrean,
baratz bazterretikan
dator indarrean,
gorputza lorrean,
lirdinga lurean,
letxua aurrean,
laister da urrean;
batere lotsik ez dek
ik muturrean.

6. Iri begira negok,
ez oso alaia,
besteren bizkar bizi
aizen galaia.
Nik astintzen dizkiat
atxur eta laia,
izerdi tantoekin
bustiaz zelaia;
artu dek usaia,
lapurretan saia,
ez naukak lasaia,
bare tripazaia,
nere barazki goxo
danen etsaia.

7. Jarriगतिक bueltan
sare eta kate,
auentzat ez du orrek
balio bate;
nunai topatzen baitu
nai ainbeste ate,
barrura sartu eta
tripa bapo bete;
beti du aldarte,
lotsik ez daukate,
beroiek alkate,
asarre naukate;
bart ere egiña du
amaika jate.

8. Orren bizimodua
etzaida graziko,
ez baita oso piña
lendabiziko;
lapurreta bestela
etzun bereiziko,
ez ote dezu zerbait
zigor mereziko?
Nik zaitut eziko,
zaia erosiko,
pozoitzen utziko,
laister da tisiko,
baiña nere kontura
ez aiz biziko.

(El Diario Vasco, 1980-II-7 eta 8)

AURTXOA TA GIZARTEA

1. Nik uste nian, mundu,
aurtxoa nintzala,
zeru eder bat edo
antzeko intzala.
Ikusi det ortatik
urrun gabiltzala,
aurtzaroko amets bat
besterik etzala,
bizitzaren lainoak
sortzen dun itzala.
2. Bat gaztetxo danean
zenbat amets gozo!
Ni beintzat aberatsa
nintzan ortan oso;
asmo ederrak egan
zebiltzan aidoso,
gero urteak pasa
ta ainbat eraso,
gizarte-atzaparrak
artu naute preso.

3. Gizarte otz batean
zailla da epeltzen,
epeldu gabe berriz
ez da ondo eltzen;
egirik sakonena
ikusten da beltzen,
beti ez da samurra
egi orri eltzen,
ortikan asten gera
askotan usteltzen.

4. Gizonak gizon dira,
akatsez beteak,
orrela egin gaitu
mundu arloteak;
gezur maltzurarentzat
zabalik ateak,
egiarentzat estu
lotuak kateak,
orrelako legeak
dauzka gizarteak.

5. Itzikan zurienak
mingain beltzetikan,
aurretik igurtzi, ta...
«kanka» atzetikan.
Auxe diot, gaztetxo,
nik biotzetikan:
ateratzen badezu
babik eltzetikan,
zeiñek jana ba-dago
plater-ertzetikan.

6. Mundua txerritoki,
gizona urdea,
biotza pozoituta,
itzean lerdea.
Egiaren garoa
nun dago ordea?
Meta baten barruan
ondotxo gordea,
ori topatu arte
astindu sardea.
7. Beti ezin da landu
artutako sailla,
beti ezin da lortu
gizonaren mailla.
Tximistaren antzera
urteak abailla,
igo ta jeixteko da
eskaillera-mailla,
noiz igo ta noiz jetxi
jakitea zailla.
8. Loi ta orbel ustelez
bein bete zan aska,
ur garbirik ez dago,
guztia lardaska;
iturri lerden zana
biurtu arraska,
korapilloak estu,
eta ezin aska,
gizarte narrats onek
ematen dun nazka!

9. Lendik sartuak asko
lokutzen erdira,
kanpokoari aiek
barrutikan tira;
zirriprixtiñak datoz
zu zauden tokira,
egi ta justizia
nun daude begira?
Neretzat itz ederrak
besterik ez dira.
10. Esaten ditudanak
ez dira berriak,
gauz oiek nola diran
ba-daki erriak;
besoak ler eginda,
aulduta gerriak,
azkazalak beztuak,
beatz elbarriak,
zenbat karraxi triste
berriz eztarriak!
11. Illargirik gabeko
basoko arratsa,
illunpe gogorra da,
illunpe garratza;
beste zerbait ba-dago
gogor, astun, latza,
beartsuen egiak
dakarren kiratsa,
usai obekoa da
gezur aberatsa.

12. Erakutsiko dizu,
aurtxoa, bizitzak,
aizeak eramaten
dituala itzak;
gogor eta astunak
dirala arkaitzak,
gogorrago etenik
gabeko ekaitzak,
ez daukala txerturik
gizarteko gaitzak.

(El Diario Vasco, 1980-III-9 eta 11)
(Goiz-Argi, 1980-III-22).

ZUGAITZ ZARRARI
(Doiñua: *Juana Bixenta Olabe*)

1. Maixuen maixu zera, «Basarri»,
au entzuten da kale ta baserri.
Bedeinkatua bedi Errezil,
baratz onean ezin errez il
zure azia,
lo egon gabe ernetzen asia,
indartsu jaio ta azia.
2. Ogeitamasei, ondoren ura,
emen ez eguzki eta ez ura;
baratz legorrak euria on du,
zuek atxurtu, simaurtu, ondu,
moztu arantza,
nork zedukan orduan ar-antza?
Txitxare gabe amu-arrantza.

3. Euskera goxo bat zuk aldean,
irratiz sartzen dana sukaldean;
egunkari, errebista, berriz,
emengo, orko eta ango berriz,
 oni ta ari,
pelota, idi, aizkora, aari,
obeto ezin gai ortan ari.

4. Gazterik utzi Granada-erreka,
ondoko baso, mendi ta erreka;
gurasoekin andik Zarautz'a,
urte astunak duten zar-autsa
 naiz-eta eldu,
jarrai, ez etsi, lanari eldu,
goseak gaude, frutua eldu.

(El Diario Vasco, 1980-V-1)

AMARI

1. Eraso nai nioke
bertsozko lanari,
nere espirituak
ori du janari;
lorerik ederrenak
bilduta amari,
mintzatzeko asmotan
dator Joxe Mari.

2. Jaungoikoak zerutik
dida bart otsegin,
eta aruntz joanikan
onela itzezin:
«Ama danen artean
irea erregin,
ari zorrak ordaintzen
ba-daukak zer egin».

3. Urrezko koroe bat,
amar aingeru an,
banatzen ari ziran
Jainko-inguruan.
«Eraman eta jarri
amari buruan,
arentzat egin degu
—esan dit— zeruan».
4. Edertasun artean
seme bat oitzean,
Zu nola ez eskertu,
Jauna, otoitzean?
Baiña orain ametsa
zala oroitzean,
malko lodi bi ditut
begi bakoitzean.
5. Zugandikan jaso det
naizen dana, orra!
Au pozik aitortzen det,
ez da derrigorra.
Mundu ontan amari
nork ordaindu zorra?
Zorretan bizi bear,
ori da gogorra.

6. Eteten ez diraden
maitasun ereak,
ez al dira, amatxo,
zure ta nereak?
Ontan danok berdintsu
kristau, abereak,
edo-ta, nork ez ditu
maitatzen bereak?

7. Zenbat maitasun, ama,
zure magalean!
Aur txikiak ba-daki
bere makalean,
xurka-xurka edanaz
era apalean,
zure kutsua duan
bular epelean.

8. Itz gozoagorikan
beste bat nork asma?
Larrialdiak beti
zugana narama;
gaiñean erortzean
bizitzaren zama,
aurraren dei bakarra:
Ama, beti ama.

9. Aundiagorik zer da
lurraren gaiñean?
Beti gordeko zaitut
biotz biguiñean;
barkatu, ez det itzik
nere mingaiñean,
Ama, zu goraltzeko
merez i aiñean.

(El Diario Vasco, 1980-VI-29)
(Goiz-Argi, 1981-V-23)

EUSKAL PARLAMENTUARI

1. Milla bederatzireun
larogeigarrena,
Martxoan sartu giñan,
ba-goaz barrena.
Euskal auteskundeak
izanak aurrena,
Parlamentua sortzen
omen da urrena.

2. Ez degu nai erdizka
dagon egirikan,
engañatzeko ez da
gezur oberikan;
geure eztena sartu
besteren birikan,
etxean bai al degu
gari garbirikan?

3. Tximinia erori,
danok jarri ketan,
konpontzeko geuk asi
bear arriketan;
ba-zan borondatea
mitin-berriketan,
boto billa erriko
baratz gorriketan.

4. Naiz barrua zikiña,
txukun ataria,
politikan orrela
boto-eiztaria;
ez berdin bakoitzaren
asmoen aria,
danak otoitz bakarra:
zu pekataria.

5. Zeruak eta lurrak,
galtzak eta gonak
eskeintzeko beldurrez
ez daude egonak;
auteskunde aurretik
danak oso onak,
orain ikusi bear
egizko gizonak.

6. Otso beltza ugari
ardi-izenean,
begi biak jarrita
bildots gizenean;
basotik artaldera
datoz zuzenean,
i, egizko artzaia,
palta aizenean.
7. Erriak amets pranko
zuengan egin du,
lanik egin nai balitz
ba-da zer berdindu;
dan-dana ez da errez,
baiña alegindu,
bestela orren merke
ez ainbat agindu.
8. Gaztaiñik ezin eska
iñork aritzari,
bai ordea eltzeko
eman zan itzari;
jauntxokeriak utzi
eta serbitzari,
osasuna berpiztu
euskal bizitzari.

(El Diario Vasco, 1980-III-26)
(Goiz-Argi, 1980-IV-12)

GAZTE, GAZTE!

(Doiñua: «*Ai, gure antziñako*»)

1. Auzoko gazte batek
zidan eraiñegun:
Joxe Mari, lagun,
ez naiz bizi munduan
zoriontsu, legun;
zazpitatik, astean,
lan egin bost egun,
jolastoki paltikan
nola-ta ez degun,
an gabiltza igande,
larunbat, ostegun.
2. Soldata bat ordaintzen
didate asteko,
—au zion asteko—
danak ez dute erik
gaur irabazteko.
Erabiliko banu
jan eta jazteko,

biziotxo batzuek
izan erazteko,
lan utsa berriz motza
da aberasteko.

3. Bizioetatikan
zailla da askatzen,
ari da nazkatzen,
saia arren katerik
ezpaitu puskatzen;
burua drogarekin
asi zan preskatzen,
gorputzak gero eta
geiago eskatzen,
gaur ez du beste ezerk
munduan kezkatzen.

4. Gaztetasun, osasun,
sasoia apurtu,
nortasuna urtu,
orra zeure burua
xelebre egurtu;
zorion-iturria
erabat agortu,
ametsik zoroenak
burumakur gurtu.
Jainko arlote baten
menpeko biurtu.

5. Galdutako ardia
ezin ekarria,
bai negargarria
euskal artalderaiño
sartu dan larria!
Nun dezu bizitzeko
lengo egarria?
Drogaren mende zauden
gazte elbarria,
lepotik bota ezin
dezun uztarria.

6. Biziotik zail dala
ezer edertzea,
obe ulertzea,
goikoei ez komeni
sakon aztertzea.
Eta ustelkeriak
gordin agertzea,
naiago gaztedia
drogara lertzea,
zikin estalgarrizat
artu dan jertsea.

(El Diario Vasco, 1980-IX-7)

(Goiz-Argi, 1980-X-4)

OILLAGORRETAN

(Doñua: *Aizak i, mutik Mañontzi*)

1. Eiztari oillagor-zale
mendi ta zakur maitale
naizen ezkeru, or nabil sarri
dili eta dale;
izan arren aien jale
askotan tira ta kale,
ibili oiek agertzen orra
amar bertso ale.

2. Azaro eta Abendu,
mendi aldera zuzendu,
pagadi eta piñu beltzari
oillagorrak kendu;
egazti piñez mantendu,
kale ertzetik aldendu,
ango pake ta askatasunak
poza ematen du.

3. Mendi gaiñean zelatan
eiztari pranko zer latan,
negu partean, eta ez beti.
aize epeletan;
zenbait leku mozpeletan
azkurea ospeletan,
ankak oztuaz izoztutako
orbel usteletan.

4. Atsegin leku ezeak
oillagor moko-luzeak,
berori sartu lur biguiñean
ta gabez aseak;
jo arren elur aizeak
ez ditu galtzen goseak,
maleziz ondo ornitutako
egazti klaseak.

5. Zakur bat ba-det apaiña,
eiztari jator, bikaiña,
oillagorraren berri ba-daki
ark errez nik aiña;
metro erdi bat mingaiña
atereaz, alajaiña!,
ibiltzen da-ta, pixka bat metu
zaio bizkar gaiña.

6. Izen bat nion ezarri,
Jai deitzen diogu sarri,
oso doñore erabiltzen det
koillare, zintzarri;
oillagorrak txukun jarri,
nik bota ta ark ekarri,
orduan pozez guk begiratzen
diogu alkarri.
7. Goiz jeikirikan goizean,
atzo, denbora luzean,
zakurrarekin ibilia naiz
gogotik eizean;
eguzkiaren pozean
bizimodu errezean,
oillagor bizkar gorri bat zegon
pago-babesean.
8. Artu du zerbaitxo usai,
ni atzetikan erne, zai,
jarrita dago, arnasa ere
ez du artzen lasai.
«Ea segi poliki, *Jai!*»,
nik esan diot baiña... bai!
Anka altzata dardaraz dago,
ez du jarraitu nai.

9. Gertakizunak berritu,
ez bedi iñor arritu,
gu ikusita oillagor ura
zearo larritu;
altxa, tira, elbarritu.
trajea oso urritu,
joan zaigu baiña luma geienak
an utziak ditu.

10. Bueltan etxera joatean,
triste sartu naiz atean,
goizeko pozak nunbait gelditu
an garo tartean;
zakurra lotu katean:
«*Jai* guk urrengo batean,
ez apuratu, bilduko degu
morralla betean».

(El Diario Vasco, 1980-XI-9 eta 12)

(Goiz-Argi, 1980-XI-29)

MUSTAFA'REN BIZITZA

1. Zuria eta beltza,
kolorez pintoa,
katu bat ba-degu guk
erdi-ijittoa;
oso xagu-zalea,
eiztari gaiztoa,
ganbaran sapaiean
amaika itoa.

2. Katu orrek xagutan
ez du berdiñikan,
etzaio zikinduko
bere jardiñikan.
Nere bixtan jan ditu
gaur sei gordiñikan,
sukaldean ez izan
nunbait sardiñikan.

3. *Mustafa* deitzen diot
jaio zanetikan,
beti ez da bizitzen
bere lanetikan;
nik baiño len probatu
bear danetikan,
orrek ateratzen nau
nere onetikan.

4. Malizia sartua
dauka ezurretan,
lo-papera egiten
daki gezurretan;
bakarrik gelditzean
azkar lapurretan,
denborik ez du galtzen
ogi-papurretan.

5. Zakurra eta biak
beti egurrean,
bixta ona ta ezin
ikusi urrean;
belarriak makurtu
era maltzurrean,
atzaparrak jarriaz
aren zintzurrean.

6. Ura ikusten badu
aldatzen da dana,
oso itxusitzen da
Mustafa laztana,
Bizkarra okertuta,
arrotu buztana,
orduan nabarmen da
gustora ez dana.

7. Erabili oi ditu
izkuntza arrotzak,
«fu ta fa» ekin dio,
aiek aize-otsak!
Besoa azkarra ta
azkazal zorrotzak,
laister kendu dizkio
belarriko otzak.

8. *Mustafa*'k sutondoan
ura ordu-pilla,
aren epelean du
bere otza illa;
oporketa garaia
berriz Otsailla,
etxea utzi eta
maitearen billa.

9. Bakarrik umatzen da
ganbaran lastotan,
oera jeixten ditu
andikan askotan;
txikiak ere pozik
biguiñean lotan,
ez da arkakusorik
paltako zokotan.

10. Umea pasiatzen
onek zenbat saio,
dirudianez oso
atsegiña zaio;
ez du bear ez kotxe
eta ez arraio,
lepotikan artuta
dabilki karraio.

(El Diario Vasco, 1981-II-1 eta 3)

PROIEKTO BERRIA

1. Karabel'en asi da
obra bat berria,
ta pozik erria:
zubiari indartu
nai die gerria.
Beste zerbait ordea
nago igerria:
Orkolaga zarrean
sortu dan larria,
errespeta zazute
gure baserria.

2. Añarbe'tik artuta
ekarri nai ura
erri ingurura,
izan ere ain zaigu
bearrezko ura;
dirudienez ba-du
Udalak ardura,
eskari au datorkit
zuretzat burura:
baserririk ez artu
jostailu-modura.

3. Pare gabekoa len
Orkolaga-gaiña,
bai eder apaiña,
zoritxarrez naikoa
aldatu da baiña;
poste eta alanbre
jarri zan nai aiña,
orain depositoa
berriz alajaiña,
paradiso gaixoak
jaso dun ordaiña!
4. Garai batean emen
soro ta belardi
txukun polit garbi,
luzaro gozatuak
bei, txal eta ardi,
negurako gordez
belar, arto, arbi;
orain gasa ta ura
sortu diran ar bi;
Orkolaga'n zerua
ez dago ozkarbi.

(El Diario Vasco, 1981-III-11)

ZALDIBI'KO TXAPELKETA

(Doñua: *Ezkondu eta ezkongai...*)

1. Martxoaren amabosta
eguraldiz ozta-ozta,
neguak nai zuan josta;
otz aundirik ez, baiña euria
egiten zuan gogoz-ta,
Zaldibi'n bertsozko pesta
gazteentzat zuten presta,
ura zan euskal orkesta!

2. Goiz-partean naiko otzak
amasei aien biotzak,
tarteetan batzuek motzak;
arratsaldean sei pasa ziran,
bai urtu ere izotzak,
bertso sakon da zorrotzak,
etziran gerta arrotzak,
jendearen txalo-otsak!

3. Peñagarikano guri
zenbat talentu ixuri!
Jaso zitun iru sari.
Telleria bat, egia esan,
asko gustatua guri,
astindu beltz eta zuri,
zorion beroak zuri,
Albiztur gaiñeko txori.
4. Peñagarikano oso
buru-argi ta eroso,
kantu aldetikan gozo;
Errenderi'n len, orain Zaldibi'n,
orra bi txapela jaso,
berriro ere eraso,
ezpadek zerbait arazo,
laister aiz ontan guraso.
5. Albizturtar bikotea
ez dago, ez, arlotea,
ba-dute ontan dotea.
Goiz-arratsalde, bertso ederrik
oiek ba-zuten botea,
pentsu biurtu otea,
eten dezute katea,
zabalik dago atea.

(El Diario Vasco, 1981-V-19)

BERTSOZKO ALKARRIZKETA

1. *Semea*: Kezka batzuek ditut,
aita, biotzean,
sinismenetik nabil
ain era motzean;
galdera au dabilkit
orain otz-otzean,
barruan sartu zaidan
ezten zorrotzean:
bukatzen ote gera
gu eriotzean?

2. *Aita*: Seme, zure galderak
ni ez nau arritzen,
kezka orrek ez nindun
neu gutxi larritzen;
kristautasuna oso
ari da urritzen,
ez da errez izango
atzera berritzen,
gaztedia ezpada
ortaz egarritzen.

3. *Semea*: Zer da kristautasuna?
Aita, entzun beza:
urtero Jaun artzea,
igandeko meza?
Jesukristo ez al zan
aularen babesa?
Gaur ere garbi dago
justizirik eza,
burua gordetzea,
ori da erreza.

4. *Aita*: Egia dago seme,
zuk diozunean,
sari erortzen gera
bide lizunean.
Kristautasuna zer dan?
Nun? Maitasunean,
danok bizi bagiña
kristautasunean,
pake ta justizia
gaur osasunean.

5. *Semea*: Gizonaren biotza
ari da gogortzen,
itz gozoekin emen
ez da ezer lortzen.
Ogirik ez da, aita,
zerutik erortzen,
baldin geure izerdiz
ezpadegu sortzen,
gosea besterikan
etzaigu etortzen.

6. *Aita:* Ortaraiño al zera
zu, seme, samindu?
Semea: Begiak triste dauzkat,
biotz onek min du;
zeru garbia zana
laiñotsu zikindu,
pakearen izarrak
nora aldegin du?
Ia etsi det, aita,
gureak egin du.
7. *Aita:* Noiz asi bear degu
guztiok alkartzen,
danok danen esanak
aintzakotzat artzen?
Borondate onenez
ezpagera jartzen,
kostako zaigu berriz
izarpean sartzen,
pakea ez du, seme,
aizeak ekartzen.
8. *Semea:* Ortarako nik ez det
biderik ikusten,
lanik asko ba-dago
ortzak erakusten;
albokoei izketan
ezpazaie usten,
asmo eta arrazoi
zer nola dituzten,
gorrotozko esiak
oso zail da austen.

9. *Aita:* Gorrototik aberats,
maitasunetik motz,
orrek ekarri digu
ainbeste eriotz;
odolustu ondoren
bide ertzetan otz,
zipristin gorri oiek
etzaizkigu arrotz,
biotzera begira
zenbat ezten zorrotz!
10. *Semea:* Lau egun pasa bear
eta oiek nola?
Ez dator zorionik
iñundik iñola;
gorrotoa gaiñezka
kirats dariola,
irakinda kanpora
ontzitik odola,
igartu da pakea
prutu zun arbola.
11. *Aita:* Nun daude zorionak?
Nun dira egiak?
Irriparrikan gabe
dabiltz aurpegiak;
gorrotozko dirdira
berekin begiak,
ortan aberats gaude,
ortan geiegiak,
laister lertu bear du
euskaldun zagiak.

12. *Semea*: Justizirik ezaren
zuloan amildu,
gezurraren mendean
egia umildu;
indarkeriz ezin da
erri bat ixildu,
maitasuna lur ontan
gorrotoak il du,
gorrotoa erein zan,
gorrotoa bildu.

(El Diario Vasco, 1980-XII-6 eta 7)

NUN DA EGIA?

1. Egia esatea
noiztikan pekatu?
Zergatikan nai zaigu
beraz debekatu?
Berori dionari
bizkarra puskatu,
esan edo ixildu
zerorrek juzkatu.

2. Justizirik etzazu
munduan eskatu,
katean lotu zuten,
ezin da askatu;
kartzela ezpadezu
artu nai ostatu,
egi aberatsekin
poliki jostatu.

3. Egiak ematen du
mundu ontan miña,
beti ez da gertatzen
gauza atsegiña;
egizale bazera
eta asmoz piña,
gizartean ba-dago
zuretzat ozpiña.

4. Prutuaren aurretik
lorea zugaitzak,
gizonaren lorea
oso jo du gaitzak;
zigortuta lurrera
berori ekaitzak,
ura poza orduan
azpiko lapaitzak!

5. Egiaren zugaitzak
zeiñen adar motzak!
Ez barkatzen munduko
aizkora zorrotzak;
begiratu lurrera,
ez dira arrotzak,
zugaitz orren azpian
ezpal eta zotzak.

6. Gezurra arratsaldez,
berdin goiz-partean,
era ortan gabiltza,
baiña noiz artean?
Egizale bat zer dan
gaurko gizartean?
Loretxo bat bezela
arantza tartean.
7. Egiaren intzetan
ez gera bustiko,
sasiak estali du
baratza betiko.
Zer gertatuko zaion
lore orri?... ito,
azpian artuko du
larrak, eta... kito!
8. Gizarte zakar ontan
gaur zenbat olatu!
Egiaren arantzak
nor ez du zulatu?
Pozoidun gertatzen da,
poliki salatu,
mingain egizalea
obe dezu lotu.

(El Diario Vasco, 1981-V-19)

ZIKUÑAGA'KO AMARI

1. Zikuñaga'n bagendun
Ama bat maitea,
nola diteke Zu gu
utzita joatea?
Kristau pranko ba-dago
naigabez betea,
gurekin nai zaitugu,
etorri zaitea,
zabalik dago gure
biotzen atea.
2. Ermita artan izarra
lorea bera zan,
lengo edertasunik
orain ezin izan;
tristura nabari da
gure baselizan,
amatxorik gabeko
sukaldeen gisan,
umezurtz gelditzea
zer dan nola esan?

3. «Atoz, etorri zait!»
esan nion ezti,
eskaria lortuko
nuela amesti.
«Gizonak —Amak zion—
biotza garesti,
sinismenaren intzak
etzaituzte busti,
neretzat ez dezute
bear ainbat asti.

4. Ingurua ez neukan
oso edertuta:
egur tarte batean
antxe baztertuta;
maitasunikan ia
etzan agertu-ta,
malkopean bakarrik
beti aspertu-ta,
zerura igo nintzan
biotza lertuta».

(Ernani'n, 1981'ean)

AU DEK ZERRI-TOKIA!
(COLZA OLIOAREN ONDORENEI
BURUZ)

1. Asi nadin berriketan,
euskal biotz gorriketan,
putre antzera ezin gu egon
beti zorriketan.
Gaitz berri bat biriketan,
erri eta iri ketan,
orain errua estali nairik
danak zuriketan.

2. Gaitz txar onen jatorriak
uste gabe etorriak,
jakingo nuke jaiotza nun dun
bere iturriak;
artu dituzten neurriak
gaur arte frutu urriak,
gauza garbirik ezer gutxi ta
kontu biurriak.

3. Etxean daukanak min du,
aldapa nola berdindu?
Berriro ere orra diruak
bazterrak zikindu.
Gobernuak zer egin du?
Laguntza asko agindu,
eriotzaren pixurik ezin
itz gozoz arindu.

4. Gaitzak berekin bi ego,
sutan ipar eta ego,
Ministro jauna sermoiarekin
pulpitura igo:
«Jende dana lasai bego,
norbait kezketan balego,
zabalik dauzka Gobernuaren
nai aiña bulego».

5. Madril aldeko errotan,
emen iru-lau lerrotan,
zer txetzen duten agertzen zail da,
ziur nago ortan;
politikoen aotan
terrorismoa ta OTAN,
gai batzuetaz arreta asko,
besteetan lotan.

6. Eztabaida nagusitu,
norberak nai du luzitu,
moteldutako erririk ezin
orrela bizitu.
Anka danak erren ditu,
iñork nai ez errenditu,
berekoikeri-zauria oso
gaiztotu aunditu.

7. Bat bele, bestea mika,
sortu zaigun ika-mika,
politikoen izenarekin
ba-dabiltz amaika;
alboko danak zirika
nundik zulatu birika,
egitekoak bazterturikan
alkarri arrika.

8. Pozoitutako aspillak
sortu dituen naspillak,
zerri-jan txarra jatea zer dan
ba-daki Castilla'k;
eunetikan gora illak,
gaitza amasei bat millak,
nun dira gizon aundi jakintsu
trajedun abillak?

9. Batek eskasa izanik,
ez dauka ezer zuzenik,
zerri-tokian gertatzen danak
bai al du izenik?
Gaitz kapritxosoa zanik
lenago ez det esan nik:
zerri kaxkarrak iltzen ditu, ez
apote gizenik.

(1981'eko Urria)

SAN JUAN JAIAK

1. Lege batzuek lendik
ditugu jasoak,
asera emanikan
bezperako suak;
berorren inguruan
bildurik auzoak,
batez ere aurtxoak
zer une gozoak!

2. Orra or bizirikan
oitura bi zarrak,
nolabait esateko
biek egiz arrak.
Zer esan nai du suak...
ateko lizarrak?
Irripar egiten du
San Juanen izarrak.

3. Alaitasun jator bat
ain da dotorea,
orixe eskeñi nai
genduken lorea;
euskal gizatasuna,
euskal umorea,
ez dezagun narrastu
oien kolorea.

4. Aiton, amon, aur, gazte
sasoiko, guraso,
egun auetan aztu
kezka ta arazo.
Biotza zabaldua
pestari eraso,
irriparra eskeñi,
naigabeak jaso.

5. Pestetan etxeoak
edo auzokoak
umorea nai du-ta,
piztu lau zokoak.
Ia gertatzen diran
pake osokoak,
arrosaren antzera
usai gozokoak.

6. Egun auetan uxa
trumoi eta odei,
ta orain bukatzeko
biotzaren bi dei:
Jaiak ondo igaro
inguruko denei,
eta besarkada bat
palta zeratenei.

(El Diario Vasco, 1981-VI-24)

MANUEL LASARTE

1. Bertso kantari nator
aspaldiko partez,
zerbait esan najetan
Manuel Lasarte'z;
zartzen ari zerala
sasoiez ta urtez
zeuk diozu, baiña ez
talentuz ta artez.

2. Biotz bertso-zaleei
emaiezu jaten,
ikusi ez dutenak
ikusi dezaten.
Zu bezelakoak bi
ez dira izaten,
esango nuke pozik
baneki esaten.

3. Naiz izan triste, alai,
edo amestiak,
paregabeak dira
zure abestiak.
Apaintasun dotorez
egiñak guztiak,
udaberri goizeko
intzetan bustiak.

4. Ikusirik etxeko
eta auzoenak,
ez da errez juzkatzen
lanik osoenak;
baiña nere iritziz
usai gozoenak,
baratz ontan, Manuel,
zure bertsoenak.

5. Bertsolari-ganbara
zarreko abea,
adarebegirik eta
pipirik gabea,
eder eta gozoa,
neurrien jabea,
itza urtuaz bertso
egin dun labea.

6. Ezer gutxi gelditzen
da emen betiko,
geienak ba-dijoaz
aritz edo piko.
Guk euskerari eusten
badiogu tinko,
zure izen aundia
ez da iñoiz ilko.

(El Diario Vasco, 1982-IV-22)

TENTAKETAN

I

1. *Joxe*: Baserritar bat naiz ni,
Joxe det izena.

Blax: Ni berriz Blax, kalean
bizi naizena;
nekazari au ez da
alproja zuzena,
jan da edanerako
bakarrik du sena;
al duen maizena
bete almazena,
dirudi zezena,
Gilbor abizena;
ganaduak goseak,
bera gizena.

2. *Joxe*: Mingaiña arin eta
nagia burua.

Blax: Etzaitez aserretu,
odol-berua.

Joxe: Arantzaz betetzen du
onek ingurua,
besteak akats asko,
bera aingerua,
aboan purua,
auzoan dirua,
ez da segurua
daukan elburua;
adarra jotzea da
Blax'en zerua.

3. *Blax*: Joxe zakartu zaigu,
jaunak, au da marka!

Joxe: Albotikan zeu asi
zera adarka.

Blax: Motiborikan gabe
dabil deadarka,
begiratu zorrotza
egiñaz zearka;
gaur goiza otarka
pasa du bizkarka,
jasoaz bakarka,
etxera baldarka,
periaren pozean
ura atzaparka!

4. *Joxe*: Astean bein jeixten naiz
menditik errira,
ostegunez azoka
edo perira;
lepoa luzatuta
au an da begira,
baimenik ez du bear,
sartzen da erdira;
buelta eta jira,
artzen aurren dira,
gero erretira,
zurkeri dirdira!
Ardoa edaten du
moda berrira.

5. *Blax*: Astea pasatzen du
«aida» eta «esti»
ostegunez perira
dator amesti;
ortarako artzen du
bear ainbat asti,
ikulluan zakarra,
ostatutan ezti.

Joxe: Berau naiko pizti,
Blax erdi-trabesti,
bertso ta abesti
eztarria busti,
nere kontura zenbat
trago garesti!

6. *Joxe*: Ez du kolperik jotzen,
arriturik nauka.
Blax: Beretzako nai luke
nik dedan mauka.
Joxe: Alperra beti dabil
langilleen aurka.
Blax: Gogor samar egiten
didazu gaur zaunka.
Joxe: Egirik ez uka.
Blax: Zuk sermoia buka.
Joxe: Oraindik oiuka,
lotsikan ez dauka,
asi zaigu balantza
eta muturka.

II

1. *Blax*: Joxe, lagun zar, baserriraiño
zu bisitatzera nator,
oraindik ere ez naiz biurtu
erabat kaleko sator;
ez det asko eskatzen,
ez aldago freskatzen
sagardo botilla bar or?
Maizago ere etorriko naiz
portatzen bazera jator.

2. *Joxe*: Bisita ote dezu elburu,
ez ote zatoz eskera?
Baserritarrok zuk uste bezin
asta-kirtenak ez gera.
Ederki ikasia
zaude diplomazia,
politikoen antzera;
zerbait espero dezun lekuan
usai artuta an zera.
3. *Blax*: Garai batean bei-biltzen eskuz,
segarekin belarrean,
kopeta busti izerdiz eta
neke latza bularrean;
gaur motorra danetan
baserriko lanetan,
bei eta zekor larrean;
Joxe bezala bizi danikan
ez da izango lurrean.
4. *Joxe*: Orren ederki bizi danikan
ez pentsa baserritarra,
lanean gogor beti bezala
orain ere tirri-tarra.
Blax beti adarrean,
albotik indarrean,
nundikan joko kitarra,
sagardorikan ez det zuretzat,
naikoa dezu pitarra.

5. *Blax*: Besteri ezer gutxi opa ta
bera mantendu egoki,
au entzunikan zimurtu ditu
sudur-ondo ta bekoki.
Ain maite du azoka,
sardea edo soka,
astero milla aitzaki;
ardo zarra ta jaki gozoak
nun dauden ondo ba-daki.
6. *Joxe*: Kopeta busti xamarra dauka
ibiliaren izerdiz,
egia esan bear zenduan,
zertako jardun itz-erdiz?
Disimuloz eskatu,
sagardoa freskatu,
malizi edo pikardiz;
egarri ori ase diteke
pago azpiko ur garbiz.
7. *Blax*: Zure antzeko amaika bada,
Joxe, gaurko egunean,
beti ez dizut nik itzegingo
diplomazi legunean.
Ikusten zaitugunez
Ernani'n ostegunez,
Tolosa'n astelenean,
senar alperra periz-peri ta
andre gaixoa lanean.

8. *Joxe*: Lana bost egun Blaxek asteen,
zortzi ordu bakoitzean,
geiago nola egin arazi
era ortan bat oitzean?
Gero larunbatean
sartu kotxe batean
nerbioen erroitzean,
ernegatuta zenbat zarata
albokoei otoitzean!

III

JOXE, BLAX'EN BIZARTEGIAN

1. *Joxe*: Jaungoikoak egun on
emen naiz osterera
illea moztera,
lan gutxirekin dabil
eta Blax poztera;
amarretikan jetxi
omen da bostera,
martxa ontan au aurki
sareak jostera,
edo gallegoekin
laban zorroztera.

2. *Blax*: Ortza sartuke dio
baldin badu zeri,
au beti azeri,
adarra jotzen beinizat
ez dago, ez, eri;
eztenka jarduna da
bi txima-luzeri,
zenbat gustatzen zaion
bide au Joxeri!
Nik apainduko zaitut,
etorri, exeri.

3. *Joxe*: Blaxen negozioa
zearo urritu,
gizona larritu;
lengo legera dabil,
au ez da berritu;
bere parroki zarra
naiko biurritu,
arrapatzen duena
erabat zuritu,
gazteak aldegiña
etzaite arritu.

4. *Blax*: Illez eta bizarrez
ederki aseak,
geienak luzeak,
alderdi ortatikan
jotzen du aizeak.
Ille-moztaille zarrak
modatik paseak,
paroan dauzkat guraiz
eta orrazeak;
zorriak ez ditu gaur
galduko goseak.

5. *Jose*: Gutxi nekatu ditu
buru, beso, gerri,
eta nik igerri,
berbera gertatua
amaika alperri.
Orain asmo aundiak,
orra oien berri:
asi bear omen du
auzo eta erri
asto ta mando mozten
baserriz baserri.

6. *Blax*: Joxe onen arrantzak
eta ostikoak
indar aundikoak,
era ortan dabilta
bere sendikoak;
errian gutxi ez-ta
gero mendikoak,
senide asko ditu,
danak kabikoak.
Astoak mozten ditut
baiña anka bikoak.

(1981'eko Abendua)

IV

1. *Joxe*: Gaur osteguna perira
etorria naiz errira,
ta bide batez zu ikustera,
Blax, bizartegira.
Telebistari begira,
ba dakit, moda berrira
dantzan ikasten ari zerala
bultza eta tira.

2. *Blax*: Asi al zerade asi,
Joxe illea artzen Blaxi,
naiago nuke joango baziña
bistatik igasi;
sutu nai ote ta sasi,
besterik etzun ikasi,
baiñan adarra jotzen ba-det nik
zuk ainbeste grazi.

3. *Joxe*: Sanjoanak ba-datoz gero,
eta zu, Blax, onezkero
ez ote zaude festetarako
jarria txit bero?
Lebita eta sonbrero
irtengo da egunero;
au zintzotuko litzake kate
bat jarri ezkerro.

4. *Blax*: Zuk, baserritar kaikoa,
ez al zenduan naikoa?
Galantak entzun bear dituzu
gaur alajainkoa!
Arrantza ta ostikoa
bere jolas guztizkoa,
katean zu zeu lotu ezkerro
ai zer idixkoa!

5. *Joxe*: Alkartu gerade baiña
gure Blax onek mingaiña
bein bear eta ez dauka oso
gozo ta apaiña;
ortza tarteko liraiña,
pozoietikan nai aiña,
ez nun espero nere bixitak
jaso dun ordaiña.

6. *Blax*: Beti da gizon abilla,
Joxe eskandalo billa,
lendikan ere esana ba-du
orrelako milla;
ez dago apal, umilla,
nai lukena iskanbilla,
itxi bearko diot etxeko
ate-maratilla.

(1982, *Ekaina*)

ASTOA SASOIEAN

1. Bertsoz emango ditut
etxeko berriak,
nola gabiltzan jakin
dezan erriak;
asto bati medio
dauzkagun larriak,
arek egin dizkigu
ikaragarriak;
bere belarriak
atzera jarriak,
ta bigun gerriak,
astindu zorriak.
Ziria sartu digu
Etxeberria'k.

2. Etzaizkio atsegin
ari krabestoak,
zer esan pasta txintxa
eta zestoak;
ez ditu nai soñean
ain tresna bastoak,
mingarriak gertatzen
aien arrastoak;
biurri gaiztoak,
jan aza-ostoak,
baba ta artoak,
baztertu lastoak.
Tontotik ez du ezer
gure astoak.

3. Len portatzen zitzaigun
ondradu ta gozo,
zerbitzu pranko bazun
etxe ta auzo;
jenero gogorra da,
makiña bat pauso
bizkarra kargatuta
emanak eroso,
baiña aspaldi oso
itxusi jiboso,
ta lanari paso,
isatsa bai jaso;
arentzat berdin dira
arre ta iso.

4. Egun-sentiarekin
arrantza goiztarrak,
logurerikan ez du
gure maizterrak;
gero belar billa joan,
zesto ta otarrak
aidean bota dizkit,
auzo denen parrak!
Jaso ditu perrak,
ez dauzka alperrak,
ondatu bazterrak,
zabaldu izterrak,
orrelakoa maiz du
gure astarrak.

5. Apal ibiltzekorik
ari ez eskatu,
ille zarrak botata
oso preskatu;
larrera aterata
jan ez-ta jostatu,
etxekotik kanpora
nai luke ostatu;
amarrak puskatu,
ta noiznai askatu,
auzoan bazkatu,
guztiak nazkatu,
begiz ikusi gabe
ezin juzkatu.

6. Bera dago nagusi,
bera da jueza,
iskanbilla sortzen ez
ain aldrebesa;
sermoia arrantza ta
ostikoa meza,
bazter guztiak nasten
daukan interesa;
lan egin nai eza,
nunbaite bajeza,
ez dago erreza
arekin babesas,
badabilki puzkerra
eta laiñeza.

7. Gaur goizean domatzen
gera alegindu,
bear dan arrastoan
ez da berdindu;
auzoko eme batez
zaigu maitemindu,
bera ikusi du-ta
lanik ez agindu;
ura ondo zaindu,
isatsa astindu,
atzeak arindu,
ezpaiñak zikindu;
ogei bat aldiz pixa
ere egin du.

8. Aitak ala esan dit:
«Obeko dek saldu,
etxeko pakerikan
ez dedin auldu».
Nik bere esanari
nai nioke eldu,
pizti biurri orrek
ez gaitzan zapaldu;
ez du bate galdu,
bizkarra zabaldu,
indarrez ugaldtu,
norbaitek nai al du?
Ernani'n Orkolaga'n
dago, azaldu.

*(1982'ko Ekainean lenengo Kaskazuri bertso-
paper leiaketaren irabazlea, Oiartzun-en).*

GURE POLITIKOAK

1. Gure politikoak
oso arrituta
naukate aspaldian,
eta larrituta;
errespetu aldetik
dabiltz urrituta,
agindu bear orrek
txit biurrituta.

2. Elkarri zer jipoiak,
zer ipurdikoak!
Ortan ikusten ditut
buru argikoak.
Au diote eskubi,
ezker, erdikoak:
«Garirik gozoenak
gure gurdikoak».

3. Larru-azal zuriak
nabarmen oriña,
emen gertatzen dana
ez al da berdiña?
Dan-dana politika
biurtzeko griña,
errotan ale orrek
nastu du iriña.

4. Jende ori eztenka
ez dago makala,
gozotasun aundirik
gabeko magala;
dirudienez oien
lenengo atala,
elkar zapaltzea da
nola edo ala.

5. Besteen arrazoirik
indartzen ez utzi,
naiz-ta eskasagoa,
geureari eutsi.
Nola? Ez du ajolik
eten edo autsi;
gure demokrazia:
norbera nagusi.

6. Akats danen erruak
besteak ditu-ta,
etzaio barkatuko
erdi-kupituta.
«Arrazoa guk degu»
azkar, zutituta;
len lau katu izan da
laurok zatituta.

(El Diario Vasco, 1982-VIII-28)

ZERRI ILTZEA

1. Zerrikume bat guk bein
erosi genduan,
gizendu ta iltzeko
gero Abenduan;
aitzakirikan ez du
izan mantenduan,
otordu ederrikan
egin du munduan.

2. Egun eder ugari
ba-zitun boteak,
geienak ondo janaz,
gutxi arloteak;
etzuen asko uste
gure apoteak
zer ondoren zekarren
ala egoteak.

3. Zerri-jana ezkurra,
esne ta iriña,
beti egin zitzaion
ari alegiña;
jan ondo ta lanik ez
bizitza urdiña,
baiña iritxi zaio
bere Sanmartiña.

4. Oberik zer goiz-giro
otz bat epeltzeko?
Gazte ta zarrak prestu
anketik eltzeko,
bear ere bai zerbait
ura umiltzeko,
ez baizeukan gogorik
artean iltzeko.

5. Zerri-tokian erne
ezin egonikan,
ondoan etzuan nai
galtza ta gonikan.
Eskua nork erantsi?
Etzan an bromikan,
gantxoak ez baizion
egingo onikan.

6. Etzan gustora etzan
maiaren ertzean,
iñork ez erori nai
eriotz beltzean;
aiek kurrinka-otsak
anketik eltzean!
Dirudienez etzun
sartu nai eltzean.
7. Odol-ustu zan eta
bukatu indarrak,
nolabait erre bear
ondoren bizarrak;
garoa sutu eta
ango *zirri-zarrak!*
Beztu bat artu zuan
gure zerri zarrak.
8. Giro umoretsu bat
asi zan ugaltzen,
itxaropenik etzun
jendeak an galtzen:
«Ez bazaio barruan
gaitzikan azaltzen,
gibel preskoa beintzat
ba-degu gosaltzen».

9. Batzuek odolkia,
giarra besteak,
ondorengo egunak
etziran tristeak,
ardo zarra edanaz
zar eta gazteak;
urtean gutxi dira
olako asteak.
10. Goseak ezpañetan
berekin muziña,
alpapa biurtzen da
orduan osiña.
Arek sortuko balu
gurean eziña,
besterikan ezean
ba-degu zeziña.

(Ernani'n, 1982'ko Uzta)

URBIA ETA AITZKORRI

1. Euskal gaztea mendizalea
beti izan da jatorriz,
nor ez da noizpait erdi-zoratu
ango borda ta baserriz?
Ormak elurra bezin zuriak
estalirik txapel gorriz,
asko ditugu aberats larrez,
basoz, errekaz, iturriz,
baiña gaurkoan mintza nai nuke
Urbiaz eta Aitzkorriz.
2. Gaur gizartea arazopean,
gizona berriz kezketan,
atsedenikan bai al da iñun
mendi gaiñean bestetan?
Beste mundu bat zoragarria
da ura nere ustetan,
zorion arek biotza lertu
ta zatitzen du pusketan,
egokiago esango luke
berak baleki izketan.

3. Ate bakoitzak gizarte ontan
orrenbeste maratilla,
korapilloak estu dauzkana
aruntz agertu dedilla.
Paradiso bat dirudi arek,
ain da paketsu, ixilla;
neri aurrean jarriagatik
tokiak aukeran milla,
ni ez nintzake iñora joango
ortikan zorion billa.

4. Arrats izartsu baten ondoren
goizean indar du intzak,
beeko aldea artalde zuriz,
goitikan berriz arkaitzak;
borda ondotan agur egiñaz
leialki lizar zugaitzak,
gizon da gauza danen gaiñetik
daukagun Aren emaitzak,
zeru pusketa arek sendatzen
ditu biotzeko gaitzak.

5. Beste au ere aitatu gabe
ezin det ixilik pasa,
oraindik ere etzaigu galdu
euskal kristauen arraza.
Arantzazu'tik Meza Santua
eskeintzera Aita Lasa,
edade ortan Urbia'raiño
jaiero ez da jolasa,
zu zera orko oitura zarra
bizirik daukan arnasa.

6. Mendizale ta artzai artean
zuk daramazun agurrak
zer pozak sortu ditun Urbia'n
ez dira esaten xamurrak.
Negu partean gaillur aietan
izotzak eta elurrak
indar artzean, orko bideak
ez dira izango laburrak,
danak urtzeko sua ordea
zure sinismen-egurrak.

(El Diario Vasco, 1982-IX-12)

KOPLAK

1. Amorraiaaren zai-zai
errekan amua;
neska, alperrikan den
geroko damua.
2. Arranoa usoen
atzetik basoan;
alabatxo, ez adi
erori lazoan.
3. Suaren inguruan
errez da epeltzen;
Miren, ez gero utzi
gerritikan eltzen.
4. Adar-igar gaiñean
kukua *ku-ku'*ka;
gure neska sorgiña
mutillei kiñuka.

5. Elorriarena bai
arantza zorrotza;
odola dariola
daukazu biotza.

6. Laiñoz estali zaigu
izarren jardiña;
nik sendatuko dizut
biotzeko miña.

7. Katuak Otsailla,
astoak Maiatza;
noiz jasoko ote det
nik zure baietza?

8. Eskutikan elduta
poliki-poliki;
atariko lizarrak
izketan baleki!

9. Neguak galtzen ditu
udako loreak;
ez ditun betirako
ire koloreak.

10. Katagorri ariña
pagotik pagora;
seigarren nobioa
utzi du albora.

11. Neskazar baten kasoa
daukat kopletan jaso;
baldin entzuten baditu
ez da jarriko gozoa.

12. Garai batean apaiña
omen ziñan oso, baiña
ederki aldatu zera,
gaixo ori, alajaiña!

13. San Antoniori meza
eta perfume inglesa;
sasoia joan zaio baiña
ez da etsitzen erreza.

14. Dama uste aundikoa,
len denei ipurdikoa,
pozikan artuko luke
orain erdipurdikoa.

15. Kontatuko dizuet
aiean-aiean,
nola ibili nintzan
Ernani'n jaiean,
erromerira joanda
gona-usaiean.
16. Nereganatu nuan
ustez ederrena,
bizkar-okerra eta
anketik errena;
obeto begiratu
bearko urrena.
17. Faborez eskatuta
asirik baltsean,
etzan giro arekin
pausoa galtzean,
tokia egiten zun
aurre ta atzean.
18. Jakin nai al dezute
ondorengo berri?
Igurtzi nizekion nik
izter eta gerri,
ar edo emea zan
ez nion igerri.

19. Urrengo baterako
orra erabaki,
nerekiko pakeak
egin ditun, Paki;
zer lotsak pasa nitun
Jaungoikoak daki!

ZUGAITZ BAKARTIA

1. Zugaitz bat badago or
mendi-gain batian,
beste guztietatik
oso apartian;
agian bentajetan,
agian kaltian,
bañan ezin da sartu
basuan tartian.
2. Garai batian etzun
biotzean penik,
gaur oiek baztartzeko
eztauka kemenik;
galdera au dabilki
ezin erantzunik:
benetan bai al dago
emen zorionik?

3. Garai batean ura
ostajian jabe,
gaur berriz zenbat pena,
kezka ta naigabe;
zugaitzak pentsatzen du:
igartzia obe,
tristia da bizitza
ostorikan gabe.

4. Bakar-bakarrik dago
mendian ertzian,
triste begiratzen du
norbait agertzian;
batez ere neguko
ekaitz zorrotzian,
negarra egiten du
aizeak jotzian.

5. Berrero emen zera
zu, negu-partia,
illundu da pagoa,
goibeldu artia;
zuretzat bai gogorra
dala elurtia,
basoz kanpora zauden
zugaitz bakartia.

6. Ez da oso ederra
eta ez da bikaña
bere azal zakarra
eta adar-gaña;
jendeak urrutitik
ikusten du baña,
etzaio inguratzen
ez baita apaña.

7. Galdera egin diot
nik inguraturik:
Orren gaztea nolaz
olako tristerik?
Ta bere erantzuna
begiak bustirik:
Gizadiak ez dauka
itxura besterik.

8. Urri dago alea,
ugari lastua,
gizadia berdintsu
dabil narrastua;
bizitzak adar pranko
badio moztua,
udaberri, berritu
zaiozu ostua.

9. Amodio bizi bat
badu biotzian,
zauriz bete diona
aizkoran antzian,
egunez triste eta
gero arratsian,
bakardade beltzaren
negar garratzian.
10. Biotza txori batek
ostu dizu zuri,
geroztik malko gutxi
ez dezu ixuri;
«Kabia egin zazu,
dio, nigan, txori».
Bañan berak badaki
ezin leike ori.
11. Txoria falta du gaur
arbola bakarrak,
tristeago dirudi
mendiko malkarrak;
bukatzen ari zaizka
zituen indarrak,
lurreraiño erori
zaizkio adarrak.

12. Munduari begira
jarri ziñan garaiz,
geroztik zenbat malko
matraillean, zugaitz;
neri ere begiak
bustitzen zaizkit maiz,
zugaitz bakarti ori
ni neroni bainaiz.

EUSKAL BARATZAK
EUSKERA LORE

1. Orra bertso batzuek
euskera gaian,
izkuntza gaixoari
poz eman naian.
Gaur aulkira jetxi da,
lenago maian,
orrela nola bizi
era alaian?

2. Erdera jolasean,
lanean, afaltzen,
geu ez al gera ari
geurea zapaltzen?
Etxekoa estali,
arrotza ugaltzen,
erri baten sustraia
errezkeriz galtzen.

3. Erriko jardiñean
izkuntza lorea,
Euskadin euskera da
eder, dotorea;
arrotzik ez degu nai,
ori da gurea,
ia zuzperten degun
bere kolorea.

4. Erri batek izkuntza
du bere oñarri,
euskerari zergatik
ainbat traba jarri?
Bizi eziñik dabil
estu eta larri,
ikastola du gure
izkerak ongarri.

5. Batean aruntz eta
bestean onuntza,
euskal-zugaitz gaiñean
erderaren untza;
dana estali asmoz
dijoa goruntza,
ito baiño lenago
eskeiñi laguntza.

6. Saia gaitezen danok
guraso, ikasle,
zer esan andereño
eta irakasle,
bertsolari, poeta
ta euskal-idazle,
euskera gerta dedin
emen irabazle.
7. Oraindik ere ez da
igartu arbola,
naiz-ta aspalditikan
zumo dariola.
Ia indartzen degun
euskal ikastola,
oso oztutzerako
Amaren odola.
8. Urrillaren iruan
ondo konturatu
euskera nai genduke
oso zeruratu;
«Kilometroak» degu
eta arduratu,
Ernani'n zai-zai gaude,
danok inguratu.

Kilometroak 82, 1982, *Urriak 3*
Egin, 1982, *Urriak 6*

SALAMANCA'RA EIZERA JOANDA

(Doiñua: *Bizkaiko txerriarena*)

1. Badauzkat esateko
kontu dotoreak,
bazterrera utzirik
gezur koloreak;
Salamanca'ra bultza
gaitu baloreak,
an itzali dituzte
gure umoreak,
illea artu digu
Gobernadoreak!
2. Gertaeraren berri
emango det labur,
bi itzetan esaten
ez da baiña samur:
Arturik eskupeta
kartutxo ta zakur,
guk etxekoei eta
aiek guri agur,
utsik etorri gera
bueltan burumakur.

3. Beda irikitzeko
illaren amarra,
izendatu ziguten
egun on samarra,
amabia ere jai,
ez baizan bakarra.
Ezaguturik gure
eizeko sukarra,
estudiatu dute
nundik jo adarra.

4. Jaun orren azioa
ez da egokia,
prankori beztu zaigu
aurten bekokia;
Salamanca genduan
eizeko tokia,
azken orduan ezetz
du erabakia.
Arategitik artu
bearko jakia.

- 5 Ciudad Rodrigo'raño
joanda buru austen,
iritsi ordurako
nun jarri gaituzten,
beste aste betean
etzutela uzten;
eizerako biderik
an etzan ikusten,
ez degu lan aundirik
eper erakusten.

6. Frutu mingotzak ditu
ezin eramanak,
gorrotoaren arrak
egindako lanak;
ainbeste mintzen ba-du
gure eizeko planak,
arrapatzeak eta
ondorengo janak...,
Gobernadore Jauna,
berorrentzat danak.

Egin, 1982, *Urriak 20*.

BUKATU ZIRAN OPORRAK

(Doiñua: *Aizak i mutill mañontzi...*)

1. Bukatu ziran oporrak,
berriro egun gogorrak,
goizero martxan jarri eziñik
nork bere motorrak...
Patrikatan legorrak,
gastu aundien zigorrak,
lengo bidera ekarri gaitu
berriz derrigorrak.

2. Gerriko eta ereak
estuturik nork bereak,
ez dakit emen zer geran: gizon
ala abereak;
tirrin despertadoreak,
agur gure umoreak,
orra berriro sasi biurtu
usai-dun loreak!

3. Goizean jeiki bostetan,
gabeko txanda bestetan,
zorion-bide onena ez da
au nere ustetan;
lanera erdi kasketan,
gogorik gabe izketan,
era orretan etziran nere
ametsak gaztetan.

4. Au bizimodu garratza,
berekoia ta narratsa:
elkar nundikan menderatuko
eguna ta arratsa;
diru usai-dun arnasa
gizartearen ardatza,
iskanbilla ta saltsa geienen
kakoa or datza.

5. Indar gabeko larreak
sortu ditun aserreak,
artzai pobreen ardi gaixoak
orrekin erreak.
Urak zikin eta arreak,
nastu baigaitu urreak,
atzea nola dantzatu orra
agertu aurreak.

6. Batzuek bapo gozatu,
besteak ezin osatu,
aiek ikusi eta nori ez
agiñak luzatu?
Tentazioak uxatu,
zertan geiegi pentsatu?
Gure bidea lana da eta
besoak dantzatu!

(Egin, 1982, *Irailak 17*)

EGUN ON

(*Doiñua: Aizak i mutil mañontzi...*)

1. Zuk: Egun on! ta nik berdin
asko poztu nauzu, *Egin*,
euskal orriak ugaritzea
ain zaigu atsegin.
«Gora euskera!» otsegin,
ez au bakarrik, itzezin,
gaixorik dagon amatxo zarra
bukatu ez dedin.

2. *Egin*'en orri berriak,
indar du zure gerriak,
lore bat ere berdin apaintzen
du udaberriak;
arrosa musugorriak,
edertzera etorriak,
jardin-usaia ia artzen dun
gure aberriak.

3. Tartean bost-sei bat orri,
benetan ongi etorri,
ala ta guztiz ikusi bear
urdin eta gorri.
Euskera indarrez urri,
tantaka zauden iturri!
Oso agortu bear al dezu,
legorte biurri?
4. Ama kopeta beztuta,
maitasunikan eztu-ta,
bere etxean bazterturikan
ezin babestuta.
Guk nola utzi aztuta?
Lore onenak moztuta
eskeñirikan jarri dezagun
berriro poztuta.
5. Gure izkuntza apaiña,
arbol igarraren zaiña,
arrak barrutik erdia jana
zaude alajaiña!
Berriro ar dezan gaiña,
biotzez maite bai, baiña,
ori bakarrik ez da naikoa:
astindu mingaiña.

(Egin, 1982-IX-2)



ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatuba!, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^a Zabala*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zalapartak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).

30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzan. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara. (*Aitua*).
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa* (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *J. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma. (*Aitua*).
54. *A. Zavala*: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*. Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria. (*Aitua*).
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria. (*Aitua*).
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria. (*Aitua*).
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa* (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak. (*Aitua*).
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).

- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika eta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabea. (*Aitua*).
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90 *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-semeak. (*Aitua*).
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*).
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*).
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria: (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten zirria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).

130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*).
144. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (III).(*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori.
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan.
153. *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zabala*: Kuba'ko gerra.
162. *J. M. Arrieta*: Nere ondar alea.



AUSPOA
LIBURUTEGIA